

Kultura

Sei kultur emanaldi izango dira ekainaren 14an, 15ean eta 16an Iurretako VII. Kalez Kale jaialdian > 13



Urritasuna duten zortzi ume saharauik Durangaldean pasako dute uda > 2


Tindufeko kanpamentuetatik Izurtzako Caritasen aterpetxera etorriko dira uda pasatzera

Gaszte talde batek eta Herria auzo elkarteak indarrak batu dituzte, udan urritasunen bat duten zortzi ume saharaui Durangaldera ekartzeko. Ekimenari Rio de Oro izena jarri diote. Mikel del Arco ekimenaren bultzatzailetako batek azaldu due-

nez, ume horiek oso zail dute kanpamentuetatik irtetea. 24 orduz zainduko dituzte, bi hilabetez. Proiektuan 40 bolondresok jardungo dute. Horiez gainera, beste zortzi ume etorriko dira Durangora, Oporrak Bakean programaren barruan.

Aseguru etxearen "bazterkeria" salatu du Urtzi Juradoren familiak

Durango, Santalucia aseguru etxearen aurrean manifestazioa egin zuten atzo Urtzi Juradoren senitarteko eta lagunek. Umearen hileta zerbitzuen erantzukizuna ez hartu izana kritikatu zuten > 3



M. Aretxaga
HAGIN KLINIKA

Maite Aretxaga

Murueta Torre, 9bajo
48200 DURANGO

haginklinika@yahoo.es
94 646 24 98

ekainaren 1etik uztailaren 30era
BONO hau eramatearren...

%15eko

DESKONTUA*
egindako diagnosietan

* ortodontzietan izan ezik

Durango > 2

6 milioiko zorra ezkutatzea egotzi dio EH Bilduk EAJri

Zaldibar > 4

Musika jaialdi berezia antolatu du Gari Rock elkarteak

Elorrio > 4

Berdintasun teknikariaren lanpostua egonkortuko dute

Durangaldea > 7

350.000 euro inbertituta, atletismo pista gertu dago

Herririk herri

> DURANGO

Urritasunak dauzkaten zortzi ume saharai jasoko dituzte udan

Izurtzako Caritasen aterpetxean pasako dute uda Tindufetik Durangora datozen umeek

> **MARKEL ONAINDIA**

Mikel del Arco gazte durangarrak Italiako Rio de Oro Gobernuz Kanpoko Erakundearen lagundu zuen, elbarritasunak zeuzkaten ume saharaiak jasozten eta zaintzen. Han bizitakoak bultzatuta, antzeko proiektu bat Durangon egitea otu zitzaion.

Umeak 24 orduz zainduko dituzte bi hilabetez; 40 bolondresen laguntza edukiko dute

Kezka horretan batu zitzaizkion Claudia Odriozola –bere lehenegusina da– eta Mainer Caballero. Pentsatu eta egin. Herria auzo elkarrengatik ipini ziren hartu-emanetan, eta gero, udalagaz ere bai. Egitasmoa egia bihurtuko da: elbarritasunak dauzkaten zortzi ume saharai jasoko dituzte Durangon. Umeek Izurtza-

ko Caritasen aterpetxean pasako dute uda.

Rio de Oro-Durango izena ipini diote ekimenari. Helburuak Oporrak Bakean programaren berberak direla esan dute: Tindufeko beroa saihestea eta elikadura egokia eta osasun arreta



Ekimenaren sustatzaileak: Angel Longarte, Mikel del Arco eta Mainer Caballero.

ematea. Ume horiek oso zail dute errefuxiatuen kanpamentuetatik irtetea, eta ideia berriak hori ahalbidetuko du. Itsuak, gorrak, autistak edota Downen sindromeak daude zortzi umeen artean. 24 orduz zainduko dituzte, bi hilabetez; 40 bolondresen laguntza edukiko dute.

Gainera, beste zortzi ume etorriko dira Durangora Oporrak Bakean programaren barruan. Iaz 14 izan ziren. Angel Longarte *Gelak* ohartarazi du proiektua indarra galtzen doala, eta desagertzeko arriskuan dagoela. Horregatik, hurrengo edizioetan parte hartzeko deia egin du.



Bilduko Arrate Elkoro eta Eider Uribe, eta Aralarreko Dani Maeztu erdian.

6 milioiko zorra ezkutatzeari egotzi dio EH Bilduk EAJri

EH Bilduk esan du hedabide batzuetako datuak faltsuak direla; EAJren gestioa kritikatu dute

> **M. O.**

EH Bilduk –Bildu eta Aralarprentsaurrekoan adierazi du hedabide batzuetan agertutako datuak faltsuak direla. Horien arabera, udalak ez dauka zorrik. Bada, EH Bilduk ohartarazi du 2012ko likidazioa egitean 6 milioi eurotik gorako zorra agertu dela. Gogor kritikatu du EAJ: “Ez dugu onartzen gezurrik esatea, eta are gutxiago kudeaketa eskasa, oso eskasa, herritarrei ezkutatzeari”. Zor hori Landako erakustazokaren eraikuntza eta

mailegu birengatik ei da. Hainbat proiektu egiteko zorpetu, baina gero ez dituela aurrera eroan kritikatu du koalizioak.

EH Bildukoek esan dute egoera horretatik datorrela 7 milioiko soberakina. “7 milioi horiek durangarrek benetan behar dituzten proiektuetan inbertitu behar dira”. Horrez gainera, uste dute EAJk ez daukala aurrekontuak onartzeko intentziorik. Luzapenagaz kudeatu eta horren ardura oposizioari leporatzeko aprobetxatuko dutela pentsatzen dute.

Frai Juan Zumarragako biribilgunea gertu dago

> **JOSEBA DERTEANO**

Frai Juan Zumarraga eta Alluitz kaleen arteko biribilguneko obrak asteon amaitu dira. Bidegurutze hori gune estrategikoa da hiri antolamenduaren ikuspuntutik, Durangoko sarbideetako bat da-eta. Urtarrilaren 15ean ekin zieten lanek 287.620 euroko aurrekontua izan dute. Biribilgunea egiteaz gainera, San Inazio eta Institutuko bidegorriarekin lotura egin dute eta espaloiak handitu egin dituzte.

Sozialisten zuzenketa

Pilar Rios zinegotzi sozialistaren esanetan, “obra hau alderdi sozialistak iazko aurrekontuetan egindako zuzenketa bati esker burutu da”. Gaineratu duenez, “EAJk obra hau urte bi atzeratu duen arren, proiektua gauzatzea lortu dugu”. Ekimen honek, Durangon zeuden 14 semaforoak kentzen lagunduko duela azaldu du Riossek.

Kontsumo arduratsuaren azoka egingo dute bihar

Merkatuaren aurrean, giza garapen jasangarria bultzatu gura dute azokaren sustatzaileak

> **M. O.**

Kontsumo Arduratsuaren I. Azoka egingo dute bihar, Andra Marin. EHNEk, Marisatsak, Emausek eta udalak eratu dute. Kontsumitzerakoan, ingurumenean eta gizartean izaten diren eraginak kontuan hartzea eskatzen du proposatu duten filosofiak. Merkatuaren aurrean, giza garapen jasangarria bultzatu gura dute. Horren harira, produktu ekologikoak kontsumitzea, bidezko merkataritza erabiltzea eta materialak

Postuak ipiniko dituzte bihar, eta bertako nekazariak ere eroango dituzte produktuak

berrerabiltzea eta trukatzeari aurkeztu dituzte, besteak beste, alternatiba lez. Praktika horiek erakusteko postuak ipiniko dituzte bihar, eta bertako nekazariak ere eroango dituzte produktuak. Gainera, hainbat tailer eskainiko dituzte; esaterako, xaboia egitekoa. Azoka 09:30etik 14:30era izango da.

Beste ekimen bi ere eratu dituzte. Herenegun, Goiener kooperatibaren berbaldia izan zen Elkartegian, energia gaitzat hartuta. Datorren egunean, hilak 13, *Voces de la madre tierra* dokumentala emango dute Elkartegian bertan, 18:30ean. Kubako eta Euskal Herriko emakume nekazariak dira protagonistak. Gero, produktuen dastaketa egingo dute, Esnetik kooperatibaren laguntzagaz.

Maristak EAEko onena izan da Euroscola lehiaketan

> **J.D.**

Euskal Autonomia Erkidegotik Euroscola lehiaketan parte hartu duten ikastetxe denetatik onenak izan dira Maristak ikastetxeko Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoko lehen mailako ikasleak. Ondorioz, Saibigain taldeak Estraburgora bidaia egiteko eskubidea irabazi du Europako Parlamentuak antolatutako lehiaketaren barruan.

Aurtengo gaia ‘Herritarren Europako Urtea’ izan da. Lehiaketak zati bi izan ditu. Lehenengoan, Europar Batasunari buruzko galderei erantzun diete, eta bigarrenean, Europaren Egunaren ospakizuna antolatu dute. Maristetako ikasleek hainbat ekintza prestatu zituzten: kalean egindako inkestak, San Antonio-Santa Rita ikastetxeko bost urteko ikasleekin egindako jokoak...

San Antonio monasterioko 1813ko eraso gogoan

> **M. O.**

Gerediaga Elkartek San Antonio monasterioaren suntsiketa gogoratzeko ekitaldia egingo du gaur. Izan ere, aurtun 200 urte bete dira monasterio horri eraso egin ziotenetik. Napoleonen kontrako gerran, erresistentziaren gortorlekua izan zen eraikin hori. Gerediagak prentsa ohar bidez esan du erasoak kalte handia eragin ziola erlijio komunitate horri. Egoerari buelta eman, eta geroztik hezkuntzan lan egin dute bertan. Ekitaldia 19:00etan izango da, monasterioko elizan bertan.

Gaurko omenaldia ez da izango Gerediagak astebururako eratu duen ekimen bakarra. Domekan, Merioaren Ibilbidea ezagutzera emango dute. Hamabost euroren truke, bisita gidatua egingo dute autobusez. Iurretako plazan irtengo dute, 09:30ean.

Urtzi Juradoren familiak aseguru etxearen “bazterkeria” salatu du

Santaluciaren aldetik Urtziren hileta zerbitzuen erantzukizuna ez hartu izana kritikatu dute

> AMAIA UGALDE / JONEGUENETXEA
Jurado Basterretxea familiak manifestazioa deitu zuen atzo, Durangon. Senitartekoek eta lagunak euren babesa adierazi zieten Jose Jurado eta Mila Basterretxea Urtziren gurasoei, aseguru etxearekin duten auzian. Manifestariak Ezkurdin batu ziren lehenengo, eta Askatasun etorbidean egoitza duen Santalucia aseguru etxera arteko bidea egin zuten.

Urtzi Jurado Basterretxea urrian hil zen, urtebete zuela, operazio baten osteko konplikazioen ondorioz. Orduan, hileta lotzeko Santalucia aseguru etxera deitutakoan jakin zuten Urtzi ez zegoela polizan sartuta: “Au-

rreko gerentziako kideen errua izan daitekeela onartu ziguten, Durangoko bulegoan iruzur arazoak izan dituztela eta posible dela eurek tramitatu ez izana”.

2011n, Urtzi semea jaiotzeko itxaroten zeudela, aseguru etxeko langile biren bisita jaso zuten zerbitzu bat eskaintzen. Umeentzako aurrezki kontu moduko bat zen, eta haren bitartez, Urtzi euren polizan sartzea sinatu zuela dio bikote berriztarrak: “Umea bihotzeko gaitz larri bategaz zegoela bagenekien, eta horregatik interesatzen zitzaigun poliza. Urte hartan jaiotzekoa zenez, poliza egin ahal genuela esan ziguten aseguru etxeok, eta sinatu egin genuen”. Urtzi-



Egueneko manifestazioan aterako irudia, aseguru etxearen aurrean.

ren hiletako gastuak ordaintzeko erantzukizuna hartu ez izana salatzen du familiak.

Dagoeneko zazpi hilabete pasatu dira, eta oraintxe etorri da aseguru etxearen erantzuna. Santalucia aseguru etxeak pren-

tsa ohar bidez jakitera eman duenez, bikoteak aurretik kontratatua zuen polizara umea gehitzea ez dute sekula tramitatu. Hala eta guztiz ere, umearen hileta ordaintzeko prest dagoela dio orain aseguru etxeak. Zazpi

hilabete hauetan pasatu duten ezinegonaren eta jaso duten tratuaren aurrean, familiak gogor kritikatu du aseguru etxearen jarrerara: “Denbora honetan pasatu dugun guztia ez da diru horrekin konpontzen”, dio familiak.

> ATXONDO

Hilaren 14an eskolako atea irekiko dizkiete herritarrei

> JOSEBA DERTEANO

Ekainaren 14ko barikuan, ate irekien jardunaldia egingo dute Atxondoko LH ikastetxean. Gurasoek zein herritarrek azpiegitura berriak bisitatu ahal izango dituzte 15:00etatik 19:30 ingurura. Horrez gainera, eskolako jolaslekuan gaztelu puzgarriak eta zezen mekanikoak ipiniko dituzte, eta, *balanzbike* bizikletekin egiteko zirkuitu bat atonduko dute. Ikastetxeko gurasoen elkarteak luntxa ere eskainiko du. Era berean, 15:00etan ikasturte amaierako jaiak egingo dute gimnasioan. Ikasleek musika emanaldiak, antzezlanak, bertsoak... prestatu dituzte.

Elizondora egun pasa antolatu du jubilatuen elkarteak

> J. D.

Ekainaren 22an, Elizondorako egun pasa antolatu du Anbotoko Damak jubilatuen elkarteak. Besteak beste, bisita gidatuak egingo dituzte Elizondo inguruan eta, ondoren, Baztan Hotolean bazkalduko dute. Izenematea ekainaren 18a baino lehen egin behar da, jubilatuen etxean: bazkideentzako 28 euro da prezioa eta bazkide ez direnentzako 32 euro. Autobusa 8:15ean igaroko da Arrazolatik; handik bost minutura Axpetik eta 8:30 inguruan Apatatik.

> OTXANDIO

Musika, dantza eta bertso bira, Mekoletako jaietan

Unai Iturriagak, Igor Elortzak, 'Abarkas'-ek eta Beñat Ugartetxeak Bertso Bira egingo dute bihar

> JOSEBA DERTEANO

Mekoletan San Bernabe jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Gaur, 23:30ean, txupina botako dute jaiak hasiera emanez, eta segidan Belako eta Seiurte taldeen, eta, Gorrotxa DJaren kontzertuak egongo dira Arkoite kultur elkartearen egoitzan.

Zapatuko egitarauari Otxandioko Urduri dantza taldearen saioak emango dio hasiera, 17:30ean. Ondoren, Txan Magoak magia erakustaldia eskainiko du. 23:30ean, Bertso bira hasiko dute; Unai Iturriaga,

Igor Elortza, Beñat Ugartetxea eta Eneko Abasolo *Abarkas* bertsolariak eta Arantzarte dantza taldea baserri ibiliko dira 01:00 ingurura arte. Urtero lez, azken baserriko ugazaba den Pedro Orueren bertsoak emango dio amaiera ekimenari. Ondoren, Arkotxeko egoitzan jarraituko du jaiak Xabi Aburruzaga eta Joseba Urrutiaren erromeriagaz. Azkenik, ekainaren 11n, San Bernabe egunean, meza eta luntxa egongo dira 13:00etan eta musika eta briska txapelketa 17:30ean.

Kirol azpiegiturak zelan egituratu hausnartuko dute

Esaterako, aurrean frontoi azpiko espazioa zelan berrantolatu eta erabili erabakiko dute

> J. D.

Herrri-Ola egitasmoko atal bat herriko kirol azpiegituren ingurukoa da. Hausnarketa prozesu bat abiatu dute aurrean, herritarren iritzia jaso eta kirol azpiegituren etorkizuneko egituraketa berria deiseinatzeko.

Maiatzaren hasieran, gai horren inguruko batzar irekia egin zuten kultur etxean, eta Santi Uribe alkatearen esanetan “talde bat osatuko dugu plana aurrera eroan eta zonalde hura zelan egituratu aztertuko”. Aurrean beharizanak

identifikatu eta kostuak kalkulatu dituzte, eta datorren urtetik aurrera hasiko dira plana garatzen, “udaleko baliabide ekonomikoen barruan”.

Esaterako, frontoi azpian badago espazio bat orain oso gutxi erabiltzen dena. Lau aldagelak eta taberna moduko gune batek osatzen dute. Alde bateatik, gune hori zelan berrantolatu erabaki behar dute (aldagela bi eta taberna kentzea da aukera bat), eta aldi berean, espazio horri zer erabilera eman dakiokeen pentsatuko dute.

> GARAI

Lasiar mendiko pinu kopuru bat salduko du udalak

> M. O.

Garaiko Udalak enkantean ipiniko du Lasiar mendiko pinu kopuru bat. Baso aprobetxamenduaren lizentzia hori urtebeterako izango da, eta 5,4 hektareakoa da lurra. Intsinis pinuak daude bertan, 51 urte-

koak. Materiala 70.000 euroan tasatu dute. Egurra ateratzeko hainbat baldintza ipini dituzte; horietako bat, inguruko arbolak ez kaltetzeko arretaz ibiltzea. Kalterik suertatzeko arriskuaren aurrean, fidantza bat ipini beharko dute lizentzia jasotzen dutenek.

Ekainaren 19ra arteko epea dago enkantean parte hartzeko. Informazioa eta baldintza guztiak, Interneteko www.garaikoudala.org webgunean eskegi dituzte.



Gauargi Taberna

Te bereziak
Gozari berezia

Dantzari, 5 - Jurreta

Gauargiren 7. urteurrenaren ospakizuna!

**EKAINAK
15**

BAZKARI SOLIDARIOA

Irabaziak

Durango-ren

ume desgaituentzako abegi kanpamenturako izango da

Izena emateko Gauargin bertan. Animatu zaitetz!

Ospatu gurekin eta lagundu Saharari!

> ZALDIBAR

Musika jaialdi berezia antolatuta du Gari Rock elkarteak

Blues kontzertuak, bazkaria eta entsegu lokalen ate irekien ekitaldia antolatu dituzte datorren asterako

> ITSASO ESTEBAN

Musikazaleen belaunaldi berriak erakarri gura dituzte Zaldibarko Gari Rock Musika elkarteak. Lehenengo musika

jaialdia antolatu dute, horretarako, ekainaren 13, 14 eta 15erako. Zapatu gauean kontzertu bat eskaintzeaz harago joan gura izan dutela azaldu dute Iban Berasaluze eta Iñaki Gorrotxategi Gari Rock elkarteak.




Gari Rock elkarteak atondutako lokaleko entsegurako gela bat.

luze eta Iñaki Gorrotxategi Gari Rock elkarteak kideek: "Musika jaialdi bereziagoa" antolatu gura izan dute. Besteak beste, gazteei bereziki zuzenduta, abenduan inauguratu zituzten lokaletara bisita gidatuak egingo dituzte, ekainaren 13an, 18:00etatik 20:00etara, eta ZZ Blues Band taldeak kontzertua eskainiko du ekainaren 14an.

Bazkaria eta 17:30ean Los Galerna taldearen kontzertua izango dira ekainaren 15ean, eta Temblores eta AZ/DZ taldeek jardungo dute gauean. "Zaldibarraren entzun ohi ez den musika egiten duten taldeak aukeratu ditugu: musika instrumentala egiten du, esaterako, Los Galernak, eta kontrabaxua darabilte Temblores taldekoek", azaldu du Gorrotxategiak.

Lokala, zabalik

Abenduan inauguratu zuten Gari Rock Elkarteak euren eskuz atondutako entsegu lokala. Intsonorizaturiko gela bi, eta grabaziorako baliabideak daukate lokal horretan. Herritar guztiak gonbidatu gura dituzte azpiegitura hori baliatzera: zaldibartarrak elkartera gerturatzeko antolatu dute, hain zuzen, I. musika jaialdia.



Iban Berasaluze

"Gazteek lokala ezagutu eta erabiltzea gura genuke"

Zelan sortu zitzaizuen lokal hau baliatzeko aukera?

Duela zortzi urte inguru utzi zigun udalak lokala. Berori atontzeko proiektuen aurrekontuak eskatzen hasi ginen, baina ezin genuen horrenbeste ordaindu. Hiru-lau urte pasatu zirenean, obra geuk egitea pentsatu genuen: elkarteak aurreztuta zeukan diruagaz eta lan handiagaz, lau urtean egin dugu obra osoa.

Jende berria erakarri gura duzue entsegu lokaletara eta elkartera?

Bai, izan ere, abenduan inauguratu genuenetik, ez da jende berririk, gazterik, hurreratu. Leku oso aproposa da hau musika egiteko, eta jendeak ezagutzea gura dugu.

Ez dabil gazterik Zaldibarko musika mugimenduan ala?

Badabilta 20-22 urteko sei lagun inguru, baina gehiago erakarri gura ditugu. Esaterako, bateria ikastaro bat eskaini dugu horretarako, eta zortzi lagunek parte hartu dute. Irailtik aurrera gitarra ikastaro bat egin gura dugu.

Zer helburu daukazue Gari Rock elkarteak?

Urtean doako hiru-lau rock kontzertu antolatzea ere bada gure asmoa. Zaldibartarrei entseatzeko lokal bat eskaintzeaz aparte, beste proposamen batzuk ere badauzkagu: ikastaroak antolatzea, etab. Proposamenak entzun eta ahal bada, gauzatu gura genituzke. Jendeak parte hartzea behar dugu horretarako.

> ELORRIO

Berdintasun teknikariaren lanpostua egonkortuko dute

Txoko Feministak 600 sinaduragaz aurkeztutako mozioa onartu dute udal taldeek, aho batez



Osoko bilkuran, Elorrioko Txoko Feministako kideek irakurri dute mozioa.

> AMAIA UGALDE

Berdintasun teknikari propioa izatearen alde herritarrek sinatutako testua aho batez onartu du Elorrioko udalbatzak. Orain, lanpostua egonkortzeko azterketa prestatuko du udalak.

Legegintzaldi hasieran, zerbitzua Amankomunazgora eramateko aukeraren inguruan berba egin zuen EAJren gobernu taldeak. Horren aurrean, Txoko Feminista sinadurak batzen hasi zen lanpostua herrian mantentzearen alde, eta 600 herritarren

Legegintzaldi hasieran, EAJk berdintasun zerbitzua Amankomunazgora eramateko aukera aipatu zuen

eta elkarteren babesa jaso du testuak.

Mozioan azaltzen dutenez, 2001ean lehenengo Berdintasun Plana egin zenetik, lanpostua egonkortzen joan da "horretarako beharra ikusi delako". Horregatik eskatu dute "lanpostua egonkortzeko beharrezko bitartekoak abiaraztea, eta legegintzaldia bukatu baino lehenago gauzatzea".

Joseba Mujika alkateordeak azaldu duenez, EAJren helburua "Berdintasun Plana garatzea da", eta 600 sinadurak ikusita, "hausnarketa egin, eta lanpostua egonkortzea" erabaki dute; "denok irabaziko dugu".

Bilduko Olga Albenizek esan du asko pozten dela jarrera aldatetarekin, eta eskerrak eman dizkie herritarrei eta, "bereziki emakume elkarteek, egindako presioagatik".

Eskualderako anbulantzia medikalizatu eskatu dute

> A.U.

Iurretako suhiltzaileen egoitzan anbulantzia medikalizatu bat ipintzeko eskaria onartu du Elorrioko udalbatzak. Durangaldeko PSE-EEk aurkeztutako mozioa izan dute berbagai, eta Bildu eta PPrende aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu dute.

Bilduk proposatutako bi puntu ere onartu dituzte, Landakoko arretaguneko langileen ardurekin bat egitea, tartean. EAJk azaldu du Osasun sailagaz batzartu direla, eta badakitela zerbitzua zelan hobetu aztertzen dabiltzala.

> MALLABIA

Herri kirolak eta asto probak Gereako jaietan

Datorren barikuan hasiko dira San Adrian jaiak

> JONE GUENETXEA

Donien atxa ipinita hasiko dituzte datorren barikuan San Adrian jaiak Gereako auzoan. 19:00etan jarri dute hitzordua auzokideek. Ekainaren 14an, zapatuan, umeei txokolata

banatuko diete 16:00etan, eta 17:00etan briska jokoan parte hartzeko dei egin dute.

Ekainaren 16an, domekan, meza izango da 11:00etan. Ondoren, Iker Garitagoitia eta Txaber Altube bertsoarietan lehen

agurra eskainiko dute. Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia egingo du. Jarraian, Uretak, Zelai IV.ak, Mainerrek eta Karmelek harriak jaso (hiru harri ezberdin), trontza, jungura eta txinga erotea egingo dituzte. Umeak txokor batzen arituko dira.

Bittorio Zelaia, Esparru, Sartzibar eta Zubibarri asto probetan neurtuko dira arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Amaitzeko, karretillakada zozkatuko dute.

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga@urtiaga.info
MATIENA
ABADIÑO

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK
ETA BEROGAILUAK, AXULEIU,
ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

AUTO BAT EROSI NAHI DUZU?



EDO



AUKERAN?

“BAI, NAHI DUT”



Baiezkoa eman aurretik bidali email bat:

siquierounford@gmail.com edo siquierounpeugeot@gmail.com

ESAIGUZU ZER NAHI DUZUN, NOIZ, ZENBAT GASTATU NAHI DUZUN...

ez zara damutuko!

Gainera, hilabete honetan AUTOMATRIKULATUTAKOen LIKIDAZIO OSOA

FORD KONDIA
PEUGEOT ETORMOBIL

Otaola etorb. - 20600 Eibar
Tel.: 943 20 76 50 (Ford)
Tel.: 943 20 09 66 (Peugeot)



Grupo Kondia

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19
48215 Iurreta
Tel.: 94 621 71 30

www.fordkondia.com - www.etormobil.com

> BERRIZ**“Ikuspuntu akademikoagoak alde batera utzita, euskara jostailu izan da”**

Herriko euskararen egoeraz hausnartu dute 5. eta 6.mailako ikasleek



Ezkerretik eskumara, Aldai, Fuentes, Dean eta Sarriugarte irakasleak.

> AMAIA UGALDE

Kolore biziz margotutako letrakin idatzi dute: *Berrizen 18 pertsonatik 5ek hitz egiten dute euskaraz*. Urtxintxa eskolaren laguntzagaz, hainbat dinamika egin dute 5. eta 6. mailako umeez, euskararen egoeraz hausnartzeko.

Berriztarren %54,6 euskalduna da, baina kaleko erabilpena baxuagoa da: %27,9koa, 2009ko neurketaren arabera. Datuok jakitean, ikasleek “harridura” erakutsi dutela aipatu dute Urtxintxako arduradunek: “Euskaraz

gehiago hitz egiten zela uste zuten”. Dinamiketan, hizkuntzen aniztasunaren balioa landu dute, eta hizkuntza ohituretan aldaketak egiteko tresnak jorratu dituzte. *Etxe* abeslari berriztarren bisita ere eduki dute ikasleek.

“Aspertu barik ibili dira”

LH 5. eta 6.mailako tutoreak dira Juanjo Aldai, Asier Fuentes, Marielen Dean eta Roberto Sarriugarte. Ekimenagaz eta ikasleen parte-hartzeagaz oso gustura daude: “euskarara beste modu

Erabilera datuak jakitean ikasleek “harridura” erakutsi dutela aipatu dute Urtxintxako arduradunek

batean hurbiltzeko aukera eman die, beti ere, parte-hartzea bultzatu delako”. Irakasleen ustez, jarduerak “aproposak eta gustukoak” izan dira: “ikasleei labur ere egin zaiela esan genezake”.

Motibatuta ikusi dituzte ikasleak: “Ikuspuntu akademikoagoak alde batera utzita, euskara jostailu izan dute”. Planteamendu pedagogikoa gustatu zaie; “aspertu barik eta motibazio handiarekin ibili direla ikusi dugu”.

Umeen euskara erabilera

2009ko kale neurketaren arabera, Berrizko haurren %30ak erabiltzen du euskara kalean. “Badakigu erabileraren aldetik gauza asko dagoela hobetzeko. Horregatik, arlo horretan ahalgin berezia egiten gabiltza”, azaldu dute irakasleek.

Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena joateko autobusa**> A. U.**

Bihar, erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago ekimena aurkeztuko dute Irungo Ficoba erakustazokan. Berrizko Kantxa Zati Bat ekimena hainbat herri batzen dituen Gure Esku Dago egitasmoan dago, eta autobusa antolatu dute Irunera joateko.

BBK paretik 09:30ean irtengo du autobusak, eta 14:00etan bueltatuko da. Txartelak Batzokian, Fondan, Ganeko-Etxen, Ama-Lurren eta Kantxa Zati Baten webgunean lortu daitezke, bakoitzak ahal duena ordainduta.

Baserrietara heltzeko GPS sistema ipini dute martxan

Larrialdi zerbitzuetako kideak baserrietara galdu barik heltzeko baliagarria izango da



Berrizko auzoetatik 32 kilometroko errepide sarea dago.

> A.U.

Interneten, www.berrizbase-riak.org helbidera sartuz gero, herriko 300 bat baserrietara heltzeko argibideak aurkitu daitezke. Datu basea osatu dute Berrizko baserri guztiak, eta horietara zelan heldu ikusi daiteke Interneten edo GPS nabigatzaileen bidez. Anbulantzia, mediku edo suhiltzaileentzat baliagarria izango da zerbitzua, larrialdietan ahalik eta arinen baserriak topatu ahal izateko.

O. Isoird: “Berrizko medikuek ez dituzte baserri guztiak ezagutzen, eta eurentzako garrantzitsua izango da”

Baserrien mapa GPS aparatuetan eta mugikorren aplikazioetan instalatu daitekeela azaldu du Orland Isoird Berrizko alkateak. Bilaketa errazteko, abiapuntu batzuk zehaztu dituzte; Durangoko ertzain etxea, Iurretako suhiltzaileen egoitza edo Berrizko osasun zentroa, esaterako. Isoird nabarmendu du lana erraztuko diela hurreko urtean zerbitzuei: “Berrizko medikuek ez dituzte baserri guztiak ezagutzen, eta eurentzako garrantzitsua da ahalik eta arinen pazienteengana heltzea”.

Berrizko auzoetatik 32 kilometroko errepide sarea dago, eta herrigunetik urrinen dagoen baserria 7,5 kilometrorra dago. Baserriko toponimia berrikusi eta proba epe baten ondoren ipini dute ofizialki sistema martxan.

DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEA 2013-2014 Ikasturtea

 LOREZAJINTZA ETA LORADENDAKO LAGUNTZAILEA	 INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO LANGILEA
 METAL-ERAIKUNTZETAKO AROTZERIAKO ETA MUNTAIAKO LANGILEA	 SUKALDEKO ETA ZERBITZUKO LANGILEA


Tel: 946 232 522
www.mdurango.org

> MAÑARIA**45 herritarrek jarraituko dute bihar auzolanean, bideak garbitzeko**

Endika Jaiok esan du auzolana lako ekimenak garrantzitsuak direla, “herria kohesionatzeko”

> M. ONAINDIA

Joan zen zapatuan izan zuten Mañarian auzolanerako lehengo eguna, eta bihar jarraituko dute ekinean, bigarren, beharrik amaitzeko asmoz. Gainera, jende gehiagok eman du izena; 45 lagun batuko dira auzoerako bideak garbitzeko.

Endika Jaio alkateak balorazio positiboa egin du joan zen asteko auzonalaz galdetean: “Lan handia egiteaz gainera, eduki genuen giroa ere zoragarria izan zen, eta hala izatea espero dugu asteburu honetan ere”. Adierazi du horrelako ekimenak garrantzitsuak direla herrian, auzoetako jendea batzeko aukera ematen duelako: “Herria kohesionatzeko ere balio du”. 35

lagun ibili ziren Aldegoienan eta Aldebarrietan bideak garbitzen. Bihar Arruetan, Aldebarrenan eta Mendibutun ibiliko dira beharrian. Goizeko 08:00etan irtengo dute auzolanera.

**> IZURTZA****Udalbatzarrak baiezkoa eman dio BiscayTIK proiektuari****> JOSEBA DERTEANO**

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako BiscayTIK proiektuan parte hartzeko agiriak aho batez onartu ditu Izurtzako udalbatzarrak. Beraz, BiscayTIK proiektura batu da Izurtza.

Egitasmo horrek helburu nagusi bat du: administrazioa eta bertako jardunbidea herritarrengana hurreratzea, eta, informazio teknologien esparruan, Bizkaia erreferente bihurtzea.

Proiektuak hiru ardatz ditu: herritarrentzako doako posta elektronikoa eskaintzea hartu-emanak sustatuta, herritarrek izapideak egiteko web ataria sortzea, eta udalbatzarako programa informatikoak garatzeko eta ahalbidetzeko lan egitea.

> DURANGALDEA ASTEON**Opariak irabazi daitezke Durango Txartelagaz**

Dendak Bai merkatarien elkar-teak ateratako Durango Txartelera atxikita dauden 80 bat establezimenduan erostekak eginda, hainbat opari irabazi daitezke ekainetik abuztura. 130 opari (aulkiak, itzalkinak...) zozkatuko dituzte. Sariak erosteten tiketean agertuko dira.

Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daude Elorrion

Ferixa Nausikoen kartel lehiaketara aurkeztutako 14 lanekin erakusketa antolatu dute Iturri kultur etxean. Ekainaren 15era arte, kartelik gustukuenaren aldeko botoa emateko aukera dute herritarrek. Ostean, epaimahai teknikoak irabazlea aukeratuko du, herritarren botoak kontuan izanda.

**Hezkuntza Jarduera Onen lehiaketan garaile Zabalarra eskolako familien elkarte**

Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteak antolatutako Hezkuntza Jarduera Onen III. Lehiaketa irabazi du Durangoko Zabalarra eskolako familien elkarteak. Pasa den domekan jaso zuten saria, Euskal Eskola Publikoaren jaietan. Guraso elkarteak eskolan egindako lana laburbiltzen du lehiaketara aurkeztutako proiektuak. Aurten lanean ibili diren gurasoek eskolako gainerako gurasoak gogoratu zituzten saria jasotzerakoan.

> ABADIÑO**838 euro batu dituzte laguntza premian daudenentzako****> I.E.**

Traña-Matienako emakume talde batek antolatu zuen joan zen asteburuan elkartasun azoka. Laguntza premian dauden abadiñarrei eta Geu Be elkarteari emango diote batu-tako dirua.

Udalak jakitera eman duenez, laguntza ekonomikoa behar duten herritarren artean banatu ditzan, 638 euro eman dizkiote dagoeneko azokaren antolatzaileek. Batu-tako beste 200 euroak premia bereziko familien Geu Be elkarteari emango dizkiote.

“Badakigu harri koskor bat baino ez dela egungo egoeran, baina lehen urratsa izan daiteke beste herritar batzuek ere ekimen gehiago antola ditzaten”, esan dute ekimenaren bultzatzaileek.

> DURANGALDEA**350.000 euro inbertitu ostean, amaitu dira atletismo pistako obrak**

Amankomunazgoko Oskar Zarrabeitiak esan du erabiltzaileek aspaldi eskatutako obrak direla

> MARKEL ONAINDIA

Amankomunazgoko presidente Oskar Zarrabeitiak prentsaurrekoa eman zuen atzo, Durangoko atletismo pistako obrak amaitu direla iragaritzeko. 350.000 euro inbertitu ditu eskualdeko administrazioak azken urtean garatu diren lanetarako. Zarrabeitiak

Zarrabeitia: “Beharrezkoa zen berritze lan hauek egitea, nahiz eta krisialdi egoeran egon”

esan zuen erabiltzaileek aspaldi eskatutako obrak direla, eta lehen mailako kirol instalazioak edukitzea zutela helburu: “Beharrezkoa zen berritze lan hauek egitea, nahiz eta krisialdi egoeran egon”. Duela hogeituzero urte eraiki zenetik ez da berritu, harmailetako estalpea izan ezik. Hainbat gabezia zeuzkan: ura sartzea, hezetasuna, ezinduentzako sarbide falta...

Ezinduen arabera

Hainbat lan egin ditu Amankomunazgoak: lurra margotu, pertika jauzirako koltxoia eta jaurtiketarako kaiola erosi, fatxada berritu, instalazio elektrikoa konpondu eta aldagelak



Zarrabeitia, atzo, Landakoko atletismo pistan.

hobetu. Ezinduen beharren arabera egin dituzte obrak, baita komunak konpondu ere. “Hala, mugikortasun urriko atletek ez dute oztoporik edukiko”, esan du Zarrabeitiak.

Atletismo pista ikasleek erabiltzen dute goizez, eta Bidezabal eta Durango Kirol Kluba tal-

deetakoek arratsaldean. EAEko pista erabili da Durangokoa; urtean 30 bat txapelketa egiten dira bertan. Zarrabeitiak adierazi du horrek diru sarrerak ekartzen dituela Durangaldean. Esaterako, ekainaren 22an eta 23an Espainiako kadete txapelketa jokatu dute 1.200 gaztek.

Trenbideko pasagune zaharra konpontzeko lanak

Udalak finantzatu du 13.130 euroko obra

> I.E.

Ohar batean jakinarazi du Abadiñoko Udalak Traña-Matienako trenbide-pasagune zaharra konpontzeko duela. Txirrindularien eta oinezkoen segurtasuna handitu gura dute obragaz.

Gobernu taldeak azaldu duenez, 13.130 euroko aurrekontua dauka obrak. Besteak beste, 20 metro luzeko tarte batean orain erabiltzen ez diren errailak kenduko dituzte, eta garbitu eta asfaltatu egingo dute errepedea.

Durango eta Matiena lotuko dituen espaloia bat ere egingo dute, eta argiteria ere berriztuko dute.

Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, “2012an trenbidearen pasagunea kendu zutenetik, inguru horren egoera negargarria” da. Izan ere, alkateak dioten arabera, tren lurperatu zutenetik, “Euskotrenek utzi egin dio mantentze lanak egiteari, eta ingurua txukuntzeko eta arrisku guztiak ezabatzeko premia larria dago”.

> IURRETA**Aita Menniri emango diote Iurreta Institutuaren Saria**

Saria gaur emango diote, 12:00etan, institutuan

> AITZIBER BASAURI

Urteetako “lan bikainagaitik” eta institutuarekin izandako harreman onagaitik Aita Mennik jasoko du Iurreta Institutuaren 10. saria. Iaz, Aita Menni ospitalean, eta, Joxemiel Barandiaran (Durango) eta Txurdinagaberri (Txurdinaga) egoitzetan egin zituzten praktikak institutuko

Arreta Soziosanitarioko lehen promozioiko 13 ikasleek; “formakuntzarako oso positiboa” izan zen, eta aurten, beste zortzi ikasle izango dira. Ekitaldia areto nagusian izango da, gaur, 12:00etan.

Ospitaleak eta Gizarte Zerbitzuek osatzen dute Aita Menni. Gizarte zerbitzu gerontologi-

koak eta soziosanitarioak kudeatzen ditu Bizkaian. Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalariena da ospitalea. Benito Mennik sortu zuen kongregazio hori 1881ean.

Aita Benito Mennik Euskal Herriko laguntza psikiatrikorrako lehen zentroa sortu zuen 1898an, Arrasateko Santa Ageda osasun etxean. Aita Menni ospitaleak babesa ematen die gaixotasun mentalak edo urritasun fisiko edo psikikoak dituztenei; garuneko kalteen errehabilitazioan dihardute azken urteotan.

NetGenie

DENA BATEN

1. Zure seme-alabek Interneten egiten dutena jakitea
2. Interneterako sarbidearen kontrola ordutegiaren arabera
3. Egokiak ez diren webguneetarako sarbidea blokeatzea
4. Web aplikazioen erabilera kontrolatzea
5. Zure ordenagailua kanpoko mehatxuetatik babestea

+ ANTIBIRUS LIZENTZIA

~~124,5€~~ **109€***

* Webgunean sartu eta kodigoa sartuta balidatutako promozioa

Kodigoa: **ANBOTO**
www.elaia.es/netgeniehome

elaia.it
eLAIA Information Technology S.L.

Montorreta Ind. E11, 2L
Durango - 94 640 98 98
www.elaia.es

▶ Berbaz

Balendin Lasuen Solozabal | 89 urteko zaldibartarra. Politikari ohia, kultur eragilea, ikertzailea eta idazlea

“Zaldibbarri buruzko koadernoak egitea ez da beharra izan; amaiera bako gozamina baino”

Trantsizioko lehenengo alkatea izan zenak omenaldia jaso zuen zapatuan, Zaldibarren. Balendin Lasuenek hainbat saltsatan jardun izan du gazte-gaztetatik: korala sortu zuen, kultura mugimendua bultzatu, politikan jardun, herriko historia ikertu...



nion ez bazuen iritzia aldatzen obeditu bai, baina esandakoa ez genuela beteko. Hau da, pase forala martxan ipiniko genuela. Azkenean, gobernadoreak ikusi zuen gure zintzotasuna-edo, eta eman zigun baimena.

Jende asko batu zen?

Askok! Jendea desiatzen zegoen aldakuntzaren bat egoteko. Orain ere egiten dira aldakuntzak, baina orduan bat ere ez egotetik demokraziara zen aldaketa! Handik ez dakit zenbat denborara lortu genituen gure helburuak.

Batzar nagusietan eta Jaurlari-tzan, kultura arloan ere ibili zinen. Garai politikak izan ziren. Jaurlari-tzakoa nire burua aberasteko era bat izan zen, kultura arloa oso zabala delako. Liburuaren sariketarak, erakusketarak, inaugurazioak... Askok ikasi nuen.

Zaldibarko pasadizo eta historia kontatzeko, 30 koaderno egin dituzu. Horietatik baten bat berezia da?

Denak. Egin ditut, ez komeni delako, horrek gauzak gustatu egiten zaizkidalako baino. Antzinako ofizioak eta... Lehen esaten zen andrazkoek ez zutela ofiziorik... Ofizio asko zituzten! Plantxan, garbitzen, arropa konpontzen, amantalak egiten-eta... Nork egiten zituen, bada? Amak! Gure ama jostuna zen, eta etxean 8-10 neska egoten ziren ikasten.

Zure herriari buruz asko ikasiko zenuen...

Bai. Adibidez, beti izan naiz natura zalea. Natura, begiratzeko bakarrik ez, belar motak eta zuhaitzak-eta... Beti eduki dut gauzak ikasteko zaletasuna, eta Zaldibarko zuhaitz kontuak batu nituen koaderno batean. Niretzako hau ez da beharra izan, amaiera bako gozamina izan da.

Azken koadernoan zuk egindako marrazkiak batu zenituen.

9 urtegar hasi nintzen marrazkiak egiten. Gero, 12 urte inguruz, gerra denboran, Eibartik etorritako maistra batek marrazketa eskola ipini zuen, eta haregaz lehenengo, eta gero bere gizonagaz ikasi nuen. Gabonetako postalak neuk egiten ditut.

> AMAIA UGALDE

Zapatuan, bere urtegunean, omenaldi beroa jaso zuen Balendin Lasuen zaldibartarrak. Kultura arloan, ikerkuntzan, politikan, herrigintzan... Lan ugari egindakoa da Lasuen. Kontatzeko dituen guztiak ez dira orrialde bateko elkarrizketan sartzen.

Zelako eguna izan zen omenaldikoa?

Ederra. Jende asko, hizlariak ere hainbat, eta ederto irten zuen. Apur bat urduri egon nintzen, baina dena ondo joan zen.

Arlo askotan lan egin duzu, kultura arloan, adibidez.

Zapatuan esan nuenez, pizkunde kulturala izan zen hura. Ni errepublika denborako mutikoa naiz, eta bizi izan nituen dantza taldeak, koruak, antzerkiak... Domeketan etxe gutxitan egoten zen irratia, eta futboleko partiduak entzuterako Batzokira joaten ginen. Hori giro hori eza-gutu nuen. Zortzi urtegar hasi nintzen dantzan, eta orduan San Inazio eguna jaiegun handia zen, eta Areetako futbol zelaiaren lehe-

nengo, eta hurrengo urtean San Mamesen 2.500 dantzari baino gehiago batu ginen. Gerra etorri zenean, akabo, horiek kontuok amaitu ziren. Horregatik esaten dut, pizkunde kulturala. Gerra amaitu eta gero, prestatuta eta ikasketak eginda nengoen, eta 21 urtegar korala sortu nuen. Konturatu ginen lehenengo egin genituenak berriro egiten hasi behar ginela. Korala, korua, dantzariak, antzerkia... Apurka-apurka, urte gutxian ipini genituen denak martxan. Herrietako eta auzoetako jaietara antzerkia egitera eta dantzara joaten ginen, eta giro euskalduna sortzen zen. Oso mugimendu polita sortu genuen.

Frankismo osteko lehenengo alkatea izan zinen. Zelan gogoratzen duzu garai hura?

Aurrekontu arloan-eta, orduan udalak bizi ezinik zebiltzan. Soldata idazkariak bakarrik zeukan, eta aurrekontuak pezetetan hiru milioi-edo izango ziren. Zazpi urte egin nituen alkate, hiru urte lehenengo sisteman, eta lau gero, hauteskundeetan aurkeztuta. Hasi eta gutxira, eginda zegoen

“

Gerra amaitu eta gero konturatu ginen lehenagoko ekimen kulturalak berriro hasi behar genituela”

aurreproiektu bat ipini genuen martxan: Bilbotik Donostiara doan errepidearen azpian pasabide bat egitea. Orduan ere arazoak egoten ziren, eta istripu bat egon zen. Andra bat astoagaz esne saltzen-edo zihoala, harripatu egin zuten, eta txarto egon zen luzaroan. Horregatik, pasabidea segituan egin behar zela pentsatu nuen. Harrezkero, dotore ipinita dago, eskilarak, eta Bilboko metroaren antzeko sarrera ere badaude! Lehenengo sisteman, alkateak jaietako meza nagusira aginte makilagaz joan eta beste

estilo batean ibiltzen ohituta zeuden, eta gauzak beste modu batera egin gura izan nituen. Jendea hartzeko ordutegi bat ere ipini nuen, hari “*konfesionarioa*” deitzen nion, eta jendeak ikusi zuen, gauzak beti ez zirela konponduko orduan, baina ahalgina egiten zela.

Frankismoa amaitu berri, giroa berezia izango zen.

Bai. Ni Bergarako Alkateen Elkartearen egon nintzen. Arrasteko eta Bergarako alkateek, Elkorok eta Altunak, sortu zuten alkate abertzaleen mugimendua. Bergaran batzen ginen, eta horregatik Bergarako Alkateak izena. Gure helburua zen ikurrina ipintzeko baimena lortzea, eta udal hauteskundeak egitea. Biak lortu genituen. Ez zen gugatik bakarrik izango, baina hein batean bai. Hor badago anekdota bat: manifestazio handi bat egin gura izan genuen Bilbon, eta horretarako hango gobernadorearen baimena behar genuen. Irakurri zuen gure eskaria, eta hasi zen trabak ipintzen, “hau ez bazenuten egingo hobe” eta horrelakoak. Halako batean, esan

ALMACENES ARRASATE



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

PLAN RENOVE

Arrasate-Mondragon



 <p>2 URTE</p> <p>1200 b/min 6 kg</p> <p>A++ Sailkapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA F-6012 345 -105 Plan renove 240 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>1200 b/min 7 kg</p> <p>A+++ Sailkapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA F-7212 375 -125 Plan renove 250 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>1200 b/min 7 kg</p> <p>A+++ Sailkapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA F-7212X 475 -125 Plan renove 350 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>1200 b/min 8 kg</p> <p>A+++ Sailkapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA F-8212 399 -125 Plan renove 274 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>1200 b/min 8 kg</p> <p>A+++ Sailkapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA WM14Q468EE 470 -125 Plan renove 345 € SIEMENS</p>
 <p>2 URTE</p> <p>A++ Sailkapen energetikoa</p> <p>ONTZI-GARBIGAILUA LVF13 405 -105 Plan renove 300 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>A++ Sailkapen energetikoa</p> <p>ONTZI-GARBIGAILUA LVF13X 420 -105 Plan renove 315 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>2005 X 600 X 610</p> <p>A++ Sailkapen energetikoa</p> <p>HOZKAILUA FFK-6885X 785 -105 Plan renove 680 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>2005 X 600 X 610</p> <p>A++ Sailkapen energetikoa</p> <p>HOZKAILUA FFK-6785X 645 -105 Plan renove 540 € FAGOR</p>	 <p>2 URTE</p> <p>INDUKZIOA PLAKA IF-33BS 395 € FAGOR</p>  <p>2 URTE</p> <p>LABE PIROLITIKOA 6H-760AX 395 € FAGOR</p>

%20-ra arteko deskontuak*

* Beherapena duten produktuetan izan ezik.

FAGOR
edesa

BOSCH
Balay

AEG
SIEMENS

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

			
ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA	MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU	+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI



Herria dugu arnas

Galdera erraz batek erantzun konplexu bat eduki dezake, erantzunik baldin badu. Sentipenak tartean daudenean ez da erantzun berdinek, are gutxiago 3, 15 edo 40 urteko pisua duenean. Noizbehinka galdezen digute, “*eta zu nongoa zira?*”. Zorionekoak gara sorterrria gertu sentitzen dugunak, baina izan bada urteen poderioz sentimenduak aldatu dituenik. Hala ere, jakin badakigu zer/nor garen, euskaldunak gara. Sorterrria uztera behartuak izan garen euskaldunak.

Arrazoi ezberdinak baina ondorio berberak lotzen gaitu, iheslariak gara. Hamarkadetako historia duen kolektiboa osatzen dugu, hamaika istorioz betea. Irriak/negarrak ez du ez herririk ez gizakirik bereizten, eta zailtasunak zailtasun, Euskal Herriak mendeetan pairatu duen gatazkaren ondorio bat gara. Ez inor baino gehiago, baina ezta gutxiago ere, gatazka honi irtenbide bat bilatu nahi dion pertsonak gara.

Normalizazioaren bidean guk ere badugu zer esana, eta honen baitan abiatu dugu ‘Herria dugu arnas’ ekimena. Badakigu zeintzuk diren iheslari izatearen arrazoi politikoak, eta horiek behin betiko bukatzeko betebeharrarekin borrokatuzera goaz. Jakinik estatuek blokeo egoera mantenduko dutela, gu gurea berreskuratuzera goaz, gertu sentitzen ditugun pasarte ilunetatik etorkizuna kolorez marrazteko asmoz. Aldebakarretik bada ere, euskal gizartearen nahiaren norabidean jarraituko dugu. Mundutik Euskal Herriera, Euskal Herri osoan libre bizitzeko eskubidea dugulako.

Horren harira, ekainaren 15ean Miarrizteko Irati aretoan jarri dugu hitzordua; ea bertan elkar ikusteko aukera dugun.

Herria zein den ahaztu gabe. Sorterrria ahaztu gabe. Matiena, Abadiño, Durangaldea. Laster arte.

Imanol Jaio

Duintasunez bizi... eta hil ere bai

Elorrioko Bilduk herrian hileta zibilak egiteko ordenantza proposamen bat aurkeztu du.

Sarritan kontrakoa badirudi ere, estatu laiko eta akonfesional batean bizi gara, eta instituzioei dagokie estatu hori osatzen duten pertsona eta erkidegoei askatasun ideologiko, erlijioso eta kultuzkoa bermatzea.

Gure gizartean, eta zehazki Elorrioren, ideologia, erlijio eta kultura aniztasun handia dago. Gizarte plural eta bizia osatzen dugu; egunetik egunera eraldatzen ari da. Gizarte honen ohiturak, usadioak, harremanak edukitze-ko eta komunikatzeko erak etengabe aldatzen ari dira. Eta maite ditugun pertsonen agur esateko erak ere aldatu dira. Orain dela 40 urte, ordenantza hau pentsaezina izango litzateke, baina gaur, inoiz baino beharrezkoagoa da.

Ordenantza honen helburua hildako senideari edo lagunari haren printzipioekin bat datorren ekitaldi koherente eta duin batekin agur esatea da. Bilduk badaki Elorrioren eskaera sozial zabala dutela hileta zibilek. Aspaldiko aldarrikapena da, eta orain dela gutxi berriz ere azaldu zen, herritarrekin aurrekontu parte-hartzaileak diseinatzeko egin genituen batzarretan.

Hileta zibilak esparru pribatuetan ere egin daitezke, baina horrez gain, Elorrioko Udalak eskaera honi erantzuna eman behar dio, hiletok egiteko leku publikoen eraketa araututa. Triste da beste herri bateko beilatoki batera joan behar izatea auzoko bati agur esatera edo, besterik gabe, etxekoei laguntasuna ematera.

Bilduk proposatu duen ordenantzaren helburua hileta zibilak egiteko ezarriko diren leku publikoen erabilera eta dagozkien lizentziak erregulatzeta da. Hileta zibilak egiteko eskaerak Elorrioko Udaleko alkatetzari egin beharko zaizkio, horretarako, udalak ezarritako eskabide eredu erabilia. Eskaera Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztuko da, edo itxita badago, udaltzaingoaren bulegoan, gutxienez ekitaldia hasi baino 24 ordu lehenago.

Bilduk hainbat leku publiko proposatu ditu ekitaldi horiek egiteko. Udalak emandako zerbitzuek ez dute inolako kosturik izango. Ekitaldiek udal langileen laguntza izango dute behar den guztirako.

Honako hauek dira Bilduk Elorrioko Udalean aurkeztutako ordenantza proposamenaren hamar artikuluetako batzuk. Proposamen logikoa, justua eta, batez ere, beharrezkoa da.

Elorrioko Bildu

SEI HANKAKO MAHAIA

URDASPAL
BOLINAGA

Bildu




Herriak du erabakia

2013ko urtarrilerako, tren lur azpitik zihoan Durangon, eta urtarrilean bertan eska-ten genion gobernu taldeari (PNV) pasabideak egiteko behar diren tramiteei ekiteko. 5 hilabetez eskatzen egon ostean, udal gobernuaren utzikeria ikusirik, herritarrek elkartu eta pasabideak egin genituen, eta zein izan da gure sorpresa, lehenik, gobernu taldeak bere hegemonia adierazi nahian, pasabideak moztu zituela, eta handik astebetera horietan lanean hasi zirela. Kasualitate gehiegi, ezta? Pasabideak herritarren presioagatik daude eginda, eta ez gobernu taldeagatik. Herritarren garaipen bat da, herritarrok uste duguna baino pisu handiagoa baitugu elkartzean.

Oraingoan, San Faustoko herritarrei tokatzen zaie. Bertan zentro zibiko bat egitea proiektatuta dago, beste behin, herritarrei galdetu gabe erabakita. Auzokideekin bilera egin ostean, honako hau erantzun ziguten: auzokideak joaten ari direla, 600 etxetatik 106 hutsik daudela. Estolderia arazo larriak dituztela, arratoiak direla-eta. Haurrek jolasteko toki bakarra dutela, eta bertan zentro zibikoa egingo dutela. Gainera, frontoia, gaur egun, alokatu egin behar dela erabili ahal izateko.

Zentroak balio duenarekin, arazo guztiak agian ez, baina horietako batzuk konpon litezke. Beraz, oraingoan San Faustoko herritarrek elkartzen badira, haien hitza entzun beharko du gobernu taldeak, eta San Faustoko herritarrek erabakiko dute nolako auzoa nahi duten. Herritarrok erabaki behar dugu, eta udalak bete egin behar du. Ez udalak erabaki eta herritarrek bete.



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - astekaria@anboto.org

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • NAN zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko ekainaren 7a
11. urtea - 504. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhua Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> ARGAZKIGINTZA

“Adibide errealak hartuko ditugu oinarri: praktikoa izango da tailerra”

‘Zelan izan argazkilaria XXI. mendean’ tailerra eskainiko du Juan Valbuenak Begira jaialdian

> ITSASO ESTEBAN

Nondik datorkizu Durangoko Begira jaialdiagaz harremana?

Banekien jaialdia existitzen zela, eta zuzenean ezagutu ez arren, inguru berdinetan mugitu izan gara beti Leo antolatzailea eta ni. Interes oso antzekoak dauzkagu: liburuak, zinema, argazkiak... Bilbon eskaini nuenaren antzeko ikastaroa eskaintzea proposatu eta jaialdira gonbidatu nau. Ekainaren 28an, argazkilaritza edizioari buruz egingo dut berba, eta tailerra eskaini asteburuan.

Parte-hartze bikoitza izango duzu, beraz, Begira jaialdian.

Bai, ekainaren 28an, *Haciendo libros* izeneko berbaldia eskainiko dut: *Book in progress* plataformari buruz, eta parte hartzen dudana Phree editoriaz egingo dut berba, eta bertan sortutako argazki liburuak erakutsiko ditut. Asteburuan batuko gara tailerrean.

Argazkigintza gaur egun zertan den kokatu gura dituzu tailerren parte-hartzaileak, ezta?

Alde batetik hori da helburua. Errealitatean kokatuko gara, baina ez ikuspuntu negatibo batetik. Adibide errealak hartuko ditugu oinarri: oso praktikoa izango da tailerra. Argazkilaria izan gura dutenei esango diet, po-

sible dela, baina lehen funtzionatzen zuten gauza batzuk aldatu behar direla, gaur egun ez baitute balio. Prest egon behar dugu negoziatzeko, bezeroak edukitzeko... Oreka bilatuta: norberak egin gura dituen argazkiak eta enkarguak uztartuta.

Zure esperientziatik egingo duzu tailerrean berba.

Bai, noski. Nophoto agentzian dihardut 2005etik, eta nire esperientziatik egiten dut berba. Zelan noan uztartzen lan pertsonalak eta profesionalak, zelan elikatzen duen batak bestea, eta zelan zaramatzen horrek argazkigintzako ibilbide oparoa edukitzera. Tesi orokorra da. Alde bi horietariko bati dena ematen badiozu, argazkigintzan daramazun ibilbidea kaltetuko duzu; enkargu gehiegi badaukazu txarto zabilta —argazkilaria moduan ase barik—, eta proiektu pertsonaletan bakarrik bazabilta ezin zaitezke bizi. Oreka puntu hori lortzera animatu gura dut jendea adibide errealean bitartez.

Parte praktikoa ere badauka gidatuko duzun tailerrek.

Bai. Parte-hartzaileen proiektuak zelan optimizatu landuko dugu: aurrekontuak egin eta, finantzazioa lortu...



J.V./NOPHOTO

Zer enkargu mota egiten duzue Nophoto agentzian?

Argazkigintza dokumentalean nabil batez ere, enpresen edo elkarten irudi korporatiboan, azkenaldian. Uste dut dokumentaletik badaukala lan horrek. Gaur egun, prentsako argazkigintza dokumentalagaz bizimodua ateratzea oso zaila da, eta uste dut sektore berri horretan badagoela lanerako aukerarik.

Phree izeneko editorilean ere badiharduzu.

Duela urtebete sortu genuen argazkigintza dokumentalean espezializaturiko editoriala. Ekainaren 28an azalduko dut nola egin dezakeen aurrera editorial

txiki independente batek, eta zer helburu dauzkagun.

Ematen du gizartearen tendenzien kontrakoa dela argazki liburuak kaleratzea?

Bai, baina egiatan, historiako momenturik onena da argazki liburuak egiteko, nik uste. Badago aukera berriak ematen dituen teknologia, eta esango nuke ‘errebote teknologiko’ moduko bat gertatu dela: musikan biniloagaz moduan, mikromundutxo bat sortu da, eta funtzionatu egiten du. Argazki liburua gure lanaren produkturik onena dela uste dugu argazkilaria askok. Liburu on batek asko promozionatzen du argazkilaria bat.

“
Egiatan, historiako momenturik onena da argazki liburuak egiteko, nik uste”

Fisika ikasi zuen Juan Valbuenak, baina beti egon da argazkigintzari lotuta: “Instititutuko argazki laborategiaren arduraduna nintzen, aitak ere beti eduki zuen laborategia etxean...”, kontatu digu Valbuenak. Duela 10 urte egin zuen argazkigintzarako hautua.

Udazkenean aterako duen liburu batean dihardu orain lanean. Madrilgo Lavapies auzoko *patera etxe* bati buruzkoa da, eta hamahiru liburuko kutxa bat izango da lan horren emaitza. Horren moduko proiektu pertsonalak zelan egin bideragarri bere esperientziatik kontatuko die Juan Valbuenak tailerrean

parte hartzen dutenei: “Zure proiektua ulertzen duen jendea topatzen jakitea oso garrantzitsua da, eta *patera etxeen* inguruko nire proiektua da horren adibide”. Caixa fundazioak ordainduko du proiektuaren parte bat, baina Valbuenak guztiz autonomo jardun du lanean; esperientziatik dio: “Zuk proiektu bikain bat daukazu jakin dutelako, eurak ez dira zugana etorriko”.

Lavapieskoa bezalako lan pertsonal luze eta geldoago horiek “hondoko korrante baten antzekoak dira, motibagarriak, eta bitartean enkargu labur eta zehatzak egiteko modukoak”, azaldu du Valbuenak.

Madrilgo Lavapies auzoko ‘patera etxe’ bateko errealitateari buruz



J.V./NOPHOTO

> EMANALDIA

Vivaldiren 'Gloria' entzungai bihar, JAED elkartearen eskutik

Basilio Astulezen zuzendaritzagaz jardungo dute Leioako San Juan Bautista abesbatzakoek Iurretan



Bihar, 19:00etatik aurrera, Iurretako San Migel elizan eskainiko dute Vivaldik XVIII. mendean idatzirik *Gloria*ren emanaldia. Abesbatzarako eliz musika da *Gloria* osatzen duena, eta JAED elkartearen 50. urteurrena ospatzeko antolaturiko ekimenetarikoa bat da biharko kontzertua.

Basilio Astulezen zuzendaritzagaz jardungo du emanaldi

horretan Leioako San Juan Bautista abesbatzak. Leioa Kantika Koralean hezitako 25 abeslarik osatzen dute, gaur egun, San Juan Bautista abesbatza. Vivaldiren *Gloria* interpretatzen, Leioako ganbera orkestra gazteak ere parte hartuko du, Margarita Lorenzo de Reizabalen zuzendaritzapean. Horrez gainera, Garbiñe Abendaño sopranoak eta Margarita Lledó mezzosopranoak ere jardungo dute.

Vivaldik XVIII. mendean konposaturiko 'Gloria' interpretatuko dute bihar, Iurretako kontzertuan

Bestalde, ekainaren 29an, Durangoko Andra Maria basilikan izango da JAED elkartearen 50. urteurrena ospatzeko azkenengo musika emanaldia: abesbatza eta orkestrarako *Nunc Dimittis Sérvum Túum* meza eskainiko dute, Durangon.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA

Ikaslea

**Curriculuma****Datu pertsonalak**

Izen-abizenak: Euskal Herriko edozein gazte
Herria: Euskal Herriko edozein herri

Telefono zk.: (2013)222.000

E-posta: lan-egin-nahi-dut@baina-ezin.com

Ikasketak

-*Ingeniaritza tekniko nuklearraren lizentziatua* University College Londonen, unibertsitatearen aipamen bereziarekin, 2005-2006.

-*Atomo makro-elektrikoen iraupen kaustikoetan masterra* Massachusetts Institute of Technologyn, 2007-2009.

-*Pertsonen neurona gabeziaren aplikazio sistematikoa teknologia berrietan graduondokoa* Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, 2009-2011.

-2011-2012 bitartean bekadun mikro eta nano sistemetako Technicalguay ikerketa zentroan (Madril).

Hizkuntzak:

-Euskarako 4. Hizkuntza Eskakizuna; Ingelesko C2 maila; Alemaneko eta Frantseseko B2 maila.

Bestelakoak:

-Biolin eta biolako lehen bost urteak Bilboko kontserbatorioan.

-B, C, D eta E gidabaimenak.

Egoera

Inpotentzia jositako, ilusioaren azken aleak eskuetatik alde egiteko zorian, amorratuta, makineriaren argi gorriak isiotuak dituen gizarte eredu herdoil batek engainatua, gaur hemen nagoenaren segurantzaz bihar non eta nola egongo naizen ezin jakiteak ikaratua, etsita, lan egiteko eskubidea praktikara eramaten ari naizen sentsazioa eduki beharrean mesede eske ari naizelako sentipen itogarriaren amaraunean preso, beste hark zioen bezala ona, polita eta merkea izan arren ere... Langabezian.

> MUSIKA

Haur Kantari Txapelketan Abadiñoeko taldea saridun

'Alaitasuna transmititzearren' ere saritu zituzten

> I.E.

Bizkaiko Haur Kantari Txapelketaren bikotekako sari nagusia ekarri dute argazkiko Abadiñoeko kantariak, 6 urtera artekoen lehiaketan. Sari nagusiaz gainera, 'alaitasuna transmititzearren' ere sari berezia eman zien txapelketaren epaimahaiak, Marisorgiñak taldean baturiko Elaia, Aihotz, Oneka eta Ilargiri.

Joan zen zapatuan, Bilboko BBK aretoan kantatu zuten Bizkaiko Haur Kantarien Txapelketako finalera ailegaturiko umeek. *Muxutruk* eta *Gorriti aztia* kantak eskaini zituzten abadiñarrek finalean.

Bizkaiko Haur Kantari Txapelketaren Ermuko eta Durangoko kanporaketetan lortu zuten neskak finalerako txartela.



Sari nagusia eta sari berezia eskuratu zituzten Bilboko finalean.

Francisco Lumbreras soinu terapeutak ikastaro bat eta kontzertu bi eskainiko ditu

Garapen espiritual eta pertsonalerako ahotsa eta kantua baliatzeko teknikak landuko dituzte

> I.E.

Sasikoa 6ko Ananta yoga zentroak gonbidatuta etorriko da Francisco Lumbreras terapeuta andaluziarra Durangora. Zentro horretan, kontzertu bi eta ikastaro bat eskainiko ditu Lumbrerases asteburuan.

Gaur, 19:00etan bata, eta 21:00etan, bestea, kontzertu bi eskainiko ditu Lumbrerases. Bihar eta etzi, berriz, ahotsa lantzeko teknikei eta kantu harmonikoari buruzko ikastaroa eskainiko du soinu terapeutak Ananta zentroan. Kantuaren ahalmen terapeutikoa erakusteko, kuartozko eta Tibeteko kaikuak, danbor ozeanikoa, euri makilak, gong-ak eta *diggeridoo*-ak baliatuko ditu Jaengo musikariak.

Ahotsa eta kantua garapen pertsonalerako eta espiritualetarako baliatzeko tekniken ingurukoa izango da ekainaren 8 eta 9ko ikastaro hori. Yoga eta soinuaren lanketa uztartuko dituzte saioetan.

Ahotsa lantzeko teknikei eta kantu harmonikoari buruzko ikastaroa eskainiko du Jaengo soinu terapeutak

Kantu harmonikoak gorputza, burua eta emozioak bateratzeko ematen duen aukera azalduko du Francisco Lumbrerases Anantako saioetan.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko eta asteburuetako menuak - Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

etara eixu talentue plazara!

> ANTZERKIA

Iurretako plazak doako kultur emanaldiz beteko ditu Kalez Kale jaialdiak

Ekainaren 14, 15 eta 16an, Amilburu, San Migel eta Dantzari plazetan izango dira jaialdiko hitzorduak

Iñaki Totorikaguena herriko alkateak eta Deabru Beltzak eta Hortzmuga antzerki taldeetako ordezkariak aurkeztu dute Kalez Kale. Jaialdia antolatzen duten zazpigarren urtea da, eta ekainaren 14, 15 eta 16rako kaleko sei kultur emanaldi dakartza.

ekonomikoaren gaineko Trapu Zaharra konpainiaren gogoeta ezagutzeko aukera izango da Iurretan: Anselmok eta Ricardok krisia zelako ikuspuntu desberdinetatik bizi duten kontatuko dute *Ametsetan bizi* obran. Amilburu plazan izango dira ekainaren 14ko emanaldi bi horiek.

“Krisi garaioan, hau bezalako antzerki jaialdiak mantetzeko Iurretak egiten duena bezalako apustua eta esfortzua babestera”, eta ekainaren 15ean eskainiko duten antzezlanak aurkeztera etorri ziren atzo, Iurretako kultur etxeko aurkezpena, Hortzmuga taldeko Raul Cancelo eta Arantza Goikoetxea. Duela hiru urte estreinatu zuten *Libertia* eskainiko dute: publiko familiarrentzako sorturiko askatasunari buruzko antzezlanak.

Marsel magoak itxiko du domekan jaialdia. Aurretik, baina, dantza ere izango da Iurretako Kalez Kalen, lehenengoz.

Arabako Bapatean Zirko taldeak zabalduko du ekainaren 14an, 17:30ean, VII. Kalez Kale jaialdia

Arabako Bapatean Zirko taldeak zabalduko du ekainaren 14an, 17:30ean, jaialdia: *Tendere-te* obragaz. Absurdoa du oinarri, eta zirku eta clown teknikak eta musika baliatuta sorturiko ikuskizun komikoa da. Ekainaren 14an, baita, 20:30ean, krisi



Dantza ere eskainiko du egitarauak, lehenengoz

Break dance eta dantza garaikidea ere, gozagai

Iurretako kale antzerki jaialdia programatzeko aholkulari bezala jarduten duen Deabru Beltzak taldeko Gargitxuk nabarmendu du aurkezpenean dantza ikuskizun bi ere izango

direla Iurretan, aurren, lehenengoz. Ekainaren 15ean, Amilburu plazan izango dira dantza emanaldi biak. *Drumbreak* perkusio eta break dance ikuskizuna eskainiko du, 20:30ean, Deabru

Beltzak taldeak, eta jarraian, 21:00etan, Organik taldeak izen bereko ikuskizuna eskainiko du. Ahari topekan inspiraturiko dantza garaikideko lana da Getxoko talde horrena.

Frontoira lekualdatuko dituzte jaialdiko emanaldiak, eguraldiak laguntzen ez badu. Kalean edo frontoian, Iurretako zein Durangaldeko ehunka kulturzale batuko ditu, datorren asteburuan, jaialdiak.

> MUSIKA

Durango Hiria lehiaketaren sari banaketa egin zuten zapatuan

Silboberri Txistu elkarteak antolatzen du Durango Hiria konposizio lehiaketa

**> I.E.**

Joan zen zapatuan egin zuten Durango Hiria txisturako konposizio lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Durangoko San Agustin kulturgunean. Ohi bezala, sari banaketarekin batera, eta Durangoko Euskal Astearen egitarauaren barruan, txistuaren aniztasuna erakusten zuen kontzertua eskaini zuten: emanaldiaren lehenengo partean, txistu garaikideko obra bi eskaini zituen Silboberri Txistu Bandak, eta bigarrenean, doinu

tradizionalagoak eskaini zituen Gasteizko Folk On taldeak.

Bi urterik behin egiten duten Durangoko txistu lehiaketa, eta zazpigarren edizioa izan da aurtengoa. Emaitzagaz oso pozik dago ekimena antolatzen duen Silboberri elkarteak, bai lehiaketan parte hartu duten musikariren mailagatik, bai eta zapatuko kontzertura bertaratu ziren entzuleen kopuruagatik ere.

Gasteizko Musika Bandaren zuzendariari, Hilario Extremiana musikariari, eman zioten lehiaketako lehenengo saria, *Itzalak* obragatik, eta David Cantalejo konpositore eta pianistak jaso zituen bigarren eta hirugarren sariak, *La cápsula del tiempo* eta *Lamiak II* obregatik.

Euskal Herriko, Espainiako, eta Ameriketako musikariren 16 lan jaso dituzte aurren.

Bi urterik behin egiten dute Durangoko txistu lehiaketa, eta zazpigarren edizioa ospatu dute aurren

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 94 620 18 93
Faxa: 94 681 64 03

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

EKAINAK 7 21:00/23:00
DURANGALDEKO I. KOPLA TXAPELKETA. 21:00 Afaria (15€)
23:00 Txapelketa. Doan

EKAINAK 13 24:30ean
WAFESH. GONBIDATUA:
ND'EYEGUEYE. Sarrera: 18-20 €

EKAINAK 15 22:00etan
VARGAS BLUES BAND
Kontzertua. Sarrera: 12-15 €

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

LINGUA NABAJORUM
Tartean Teatro = Ez dok hiru bikoteatroa

Ekainak 13 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Garage SAN MIGUEL



UDAKO PROMOZIOA

NIBELAK, ARGIAK,
ERROBEREN PRESIOA ETA
ZURE AUTOAREN
SEGURTASUN PUNTU GUZTIAK
BEGIRATZEN DITUGU

DOAN

Gainera, edozein konponketa
egitea beharrezkoa
balitz, aurrekontua
egingo dizugu, inolako
konpromisorik gabe

OLIOA ETA IRAGAZKIAK
ALDATZERA KOAN
AIRE EGOKITUAREN
GASA BETETZEN DIZUGU
20 euroan, ETA AIRE
EGOKITUAREN ZIRKUITU OSOA
BEGIRATZEN DIZUGU

DOAN

Konponketaren bat egitea
beharrezkoa balitz
aurrekontua prestatuko dizugu,
konpromisorik gabe

**Ekainaren 10etik
abuztuaren 2ra
arte balioa
duen promozioa**

Kirola

> TXIRRINDULARITZA

Lehenengo egunetik agintzen hasi da Marianne Vos munduko txapelduna

Emakumeen Birako lehenengo etapa esprintean irabazi zuen Rabobank taldeko txirrindulariak



Marianne Vos, erdian, Emakumeen Birako lehen lasterketako podiumean, lurretan.

JOSEBA DERTEANO

Emakumeen Bira irabazteko asmo sendoarekin etorri dela erakutsi zuen atzo Marianne Vos herbeherearrak. Iurretan hasi eta amaitu zen etapa erraz irabazi zuen esprintean Adrië Visser eta Rossella Rattoen aurretik. Ondorioz, bera da Birako lehenengo liderra.

Gaur, Aretxabaletan hasi eta amaituko den etapan lehenengo mailako Gatzaga mendatea igoko dute

Mugimendu askorik gabeko etapa izan zen. Ihesaldi gutxi eta denak tropelean. Gertaera aipagarri bakarra Arritugane mendatea igotzen hasi aurretik jazotako erorikoa izan zen. Hamar bat txirrindulari erori eta bat, larri ez, baina ospitalera eraman zuten. Helmugan Dorleta Eskamendi (Bizkaia-Durango)

izan zen lehenengo euskalduna, irabazlearen denbora berean. Jon Elorriaga Bizkaia-Durango zuzendariaren berbetan txirrindulari bat (Anna Sanchis, Ane Santesteban edo Joanne Hogan) sailkapen nagusiko hamar onenen artean sartzea dute helburu, baita euskaldun onenaren sailkapena irabaztea ere.

Gaur Gatzaga igoko dute

Atzoko lasterketa esprinte-errentzako aproposa izan bazen, gaurtik aurrera sailkapenerako borrokan dabiltzan txirrindularien txanda izango da. Aretxabaletan hasi eta amaituko den etapan lehenengo mailako Gatzaga mendatea igoko dute. Gatzaga gainetik helmugara 15 kilometro bakarrik geratuko dira.

Bihar erlojupekoan lehiatuko dira. Urduña inguruan prestatutako 13 kilometroko ibilbidea gorabeheratsua eta nahiko teknikoa da. Ez da erlojupeko luzea, baina faboritoen artean aldeak markatu ditzake.

Domekako azken etapa (Fruiz-Gatika) denetan gogorrena da. Hirugarren mailako mendate bat (Meakaur) eta bigarren mailako bi (Errigoiti eta Arrieta) igoko dituzte. Errigoiti igo, lau kilometro jaitsi eta segituan hasiko dira Arrieta igotzen. Handik helmugara 22 kilometro faltako dira.

Bizikleta eguna antolatu dute 14 urtera arteko gaztetxoentzat

Durango Txirrindulari Elkartek Bizikleta Eguna antolatu du domekarako. 10:30ean hasiko da Hiper-Simply supermerkatuaren ondoan. 5-14 urteko gaztetxoei zuzenduta dago, eta errepideko zein mendiko bizikletagaz parte hartu daiteke. Izen-ematea doakoa da. 5-9 urteko gazteak, zirkuituan ez ezik, Durango bidegorrian ibiliko dira; nagusiek Gazteluko itzulia egingo dute. Gurasoek ere parte hartu dezakete bidegorrian eta Gazteluko itzulian. Amaieran, opariak zozkatuko dituzte.

Euskadiko azpitxapeldun geratu da Isasi elorriarra pistan

Joan zen asteburuan, pistako Euskadiko Txapelketa jokatu zuten Donostiako Anoeta belodromoan, omnium modalitatean. Iurretako CAF Engineering taldeko Ziortza Isasi (17 urte, Elorrio) azpitxapeldun geratu zen Ane Iriarteren atzetik. Otsailetik pistako lasterketetan parte hartu barik zegoen, eta ia prestaketa barik parte hartu zuen. Iaz Espainiako txapelketan txapeldun geratu ziren Iriarte eta biak, abiadura olinpiko modalitatean.

> AUTOMOBILISMOA

Slalom txapelketako proba jokatu dute Abadiñon

Durungalde Racing Elkarteko Victor Calvok lidertza defendatu du Astolako zirkuituan

Abadiño Rally Elkartek eta Durungalde Racing Elkartek elkarlanean egindako lanari esker, Euskadiko Slalom Txapelketako hirugarren proba Abadiñon lehiatuko da domeka honetan, 15:30etik aurrera.

Durungaldean mota honetako probarik ez zegoelako hartu dute lan hori elkarte biek. Abadiñoko Astola auzoan, Alco enpresaren parean, antolatuko dute zirkuitua. Slalom probetan ohikoa den moduan, parte-hartzaileek errepidean topatzen dituzten oztopoak saihestu beharko dituzte.

Euskadiko Slalom Txapelketarako puntuagarria da domekako proba, eta guztira, 30 bat gidarik parte hartuko dutela adierazi dute antolatzaileek. Dimako eta Ortuellako proben ostean, Victor Calvo gasteiztarra da sailkapeneko liderra. Calvo Durungalde Racing Elkartegaz lehiatzen da, eta bera da domekako saioa irabazteko faborito nagusia.

Abadiñoko probaren ostean, Areta, Zestoa, Lemoa, Ugarana eta Zorroakoak faltako dira Euskadiko Slalom Txapelketa amaitzeko.

> ERRUGBIA

Aurten, lehenengo bider, Beteranoen Bizkaiko Errugbi Txapelketa antolatuko dute, eta estreinako aldia Durango Arripausuetak hartuko du zapatuan, 10:00etatik aurrera. Guztira, sei talde lehiatuko dira, tartean Durango Sapuzaharrak eta Elorrio. Gainerako lau taldeak honako hauek dira: Gernika, UniBilbo-Kakarraldo, Mungia eta Ipar Euskal Herriko Lourdes. Taldeak multzo bitan banatuko dituzte, eta multzo bakoitzeko aurrenekoek jokatu dute finala.

“Helburu nagusia ez da lehiaketa”, azaldu du Sapuzaharrak taldeko Gotzon Gomezek, “baizik sasoi bateko errugbilariak batu eta eguna jai-giroan pasatzea”. Txapelketaren ostean, Plateruena kafe antzokian bazkalduko dute.

Durango beteteranoen lehen txapelketa hartuko du bihar

Arripausuetan sei talde lehiatuko dira



Durango Sapuzaharrak da parte-hartzaileetako bat. sapuzaharrak.com

> **FUTBOLA**

Futbola alderdi askotatik aztertuko dute hamar adituk

Futbolaren gaineko kongresua antolatu dute asteburuan Durangon

> **JOSEBA DERTEANO**

Zapaturako eta domekarako futbolaren gaineko lehen kongresua antolatu du Gertasport enpresak Durangoko Gran Hotelen. Futbol profesionalaren makineria hamaika torlojuk osatzen dute, eta arrakasta alderdi denen arteko harmonian eta eraginkortasunean dago. Ideia hori buruan, futbola ertz askotatik aztertuko duten hamar adituk parte hartuko dute hitzaldietan: medikuek, entrenatzaileek, psikologoek... Kongresuko entzule izateko izen-emateko epea amaituta dago, eta guztira, 80 bat lagun batuko dira. Asko Euskal Herrikoak dira, baina kongre-

sua bertatik bertara jarraituko dutenetako batzuk Madril edo Castellotik etorriko dira, besteak beste.

Kongresua zati bitan banatu dute: teorikoa eta praktikoa. Zazpaituko sei hitzaldiak Durangoko Gran Hotelen egingo dituzte; Jose Mari Amorrortu, Jon Pascua, Jose Carrascosa, Felix Sarriugarte, Juan Iribarren eta Joxean Lekue izango dira hizlariak. Domeka goiza Iurretako Larakozelaian emango dute Mikel Etxarri eta Gonzalo Arconadaren azalpenak entzun eta Iurretakoko jokalariekin lantzeko. Ondoren, Gran Hotelera bueltatuta, Gari Fullaondo eta Jose Luis Mendili-

barren berbaldiek emango diote amaiera kongresuari.

Ekimeneko antolatzaileetako bat den Mikel Arangurenen berbetan kongresua "urteroko hitzordu" bihurtzeko asmoa dute, mota onetako ekimen gutxi daudelako inguruan. Durangaldean sortutako enpresa denez eta Durango kokaleku pribilegiatua dagoenez (azpiegiturak, garraio-bideak...) kongresua hemen egitea aukeratu dute. Aurkezpen ekitaldian eskerrak eman zizkien hizlariari erakutsi duten prestutasunagatik eta babesleei euren laguntzagatik, batez ere, Gran Hoteli, Cafes Baqueri eta Bizkaiko Futbol Federazioari.



Mikel Aranguren eta Jon Gurutz Vazquez kongresuaren antolatzaileak.



Jose Mari Amorrortu

Zapatuan, 10:00etan hasiko du berbaldia. Amorrortu Athletic Clubeko Kirol Zuzendaria da gaur egun, eta han pilotutako esperientzia oinarri hartuta, jokalarien formazioaren inguruko xehetasunak eskainiko ditu.



Jon Pascua

Zapatuan, 11:30etik aurrera, kirol errendimenduari buruz ariko da Jon Pascua. 2010etik hona Hegoafrikako Mamelodi Sundowns taldean lan egiten du, eta hango esperientziak eta abenturak ere azalduko ditu.



Jose Carrascosa

Zapatuan, 12:45ean hasita, autokonfiantzaren alorra sakonduko du gaur egun Sevilla futbol taldeko psikologoa den Carrascosak. Valentzia taldeak liga irabazi zuen kirol taldeko partaidea ere izan zen.



Felix Sarriugarte

Zapatuan, 16:00etan, bazkalosteko lehen hitzaldia eskainiko du. Athletic taldea entrenatu zuen, eta aurten Oviedon dabil. Entrenatzaileek hartu behar dituzten askotariko erabakien gainean jardungo du.



Juan Iribarren

Zapatuan, 17:15ean, gaur egun Espanyol futbol taldeko prestatzaile fisikoa den Iribarrenek hartuko du hitza. Jabier Aguirre entrenatzaileagaz lanean ibili da 10 urtez, Osasuna eta Atlético de Madrid lako taldeetan.



Joxean Lekue

Zapatuko jardunaldiari amaiera ipiniko dio Athletic Clubean mediku zerbitzuetako buru den Lekuek. Besteak beste, medikuen eta talde teknikoaren arteko hartu-emanak zelakoa izan behar duen azalduko du.



Mikel Etxarri

Domekan, 09:30ean, jokoa zelan ikusi eta oreka zelan lortu izango ditu berba guztiak Euskal Selektzioaren hautatzaileetako bat den Mikel Etxarri. Larakozelaian egingo diren hitzaldi praktikoen aurrenekoa da.



Gonzalo Arconada

Domekan, 10:30ean, Real Sociedad, Almeria, Tenerife eta Numantzia taldeak entrenatu dituen Gonzalo Arconadak hartuko dio lekukoa Etxarri. Entrenamenduen osaketaren gainean jardungo du.



Gari Fullaondo

Alderdi praktikoaren ostean, domekan, 12:15ean, eguerdiko lehen hitzaldia eskainiko du Gran Hotelen. Espainiako Futbol Federazioan lehen, bigarren eta bigarren B mailako teknikoaren aholkularia da.



Jose Luis Mendilbar

Osasunagaz mailari eustea lortu duen Mendilbarrek itxiko du lehen futbol kongresua domekan, 13:15ean. Defentsa lanean presioa zelan landu daitekeen azalduko du entrenatzaile zaldibartarrak.

hitz

liburudenda

artekalea 14 durango 94 681 07 76

info@hitzliburudenda.com

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: **94 681 87 92**
48200 ABADIÑO

> TXIRRINDULARITZA

Bizkaiko kostaldetik martxa zikloturista egingo dute, etzi

Berrizen hasi eta amaituko den martxak 120 kilometro izango ditu



Aurten, laugarren aldia egingo du Berrizko Martxa Zikloturistak.

> JOSEBA DERTEANO

Berriz Bizikletari elkarteak Berrizko IV. Martxa Zikloturista antolatu du domekarako, hilak 9. Ibilbideak 120 kilometro ditu eta zatirik handienean Bizkaiko kostaldetik ibiliko dira, Laidatik Ondarroara joango direlako, Markinatik berriro Berrizera bueltatu aurretik.

Martxa 09:00etan hasiko da Berrizko udaletxe parean. Muni-keta igo, Asteiko bidegurutzean Urrutxua eta Mendatarantz hartu, eta Gernikatik aurrera kostaldean sartuko dira Laidatik. Itsasoa bidelagun dutela egingo

dituzte hurrengo kilometroak Laga, Ea, Lekeitio eta Ondarroatik. Ondoren, Berrizera itzuliko dira Markina, Ixua gaina, Eibar, eta Areitio igarota.

Parte-hartzaile guztiek hornidura puntu bi izango dituzte Ispasterren (likidoa eta solidoa) eta Ixua gainean (likidoa). Martxaren amaieran luntxa prestatu dute denentzako. Gainera, dutxak ahalbidetuko dituzte Berrizko kiroldegian.

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke: 15 euro balio du lizentzia dutenentzat eta 25 euro lizentzia bakoentzat. Webgune

bidez (www.berrizbizikletarielkartea.com) izen-ematea merkeago egin daiteke. Gaur gauerdian amaitzen da Internetez apuntatzeko epea.

DATUAK

- **Hasiera:** Domekan, 09:00etan, Berrizko udaletxe parean
- **Luzera:** 120 kilometro
- **Hornidura puntuak:** Ispasterren eta Ixua gainean
- **Izen-ematea:** egunean bertan edo webgunean: 'www.berrizbizikletarielkartea.com'

> MARATOIAK

Futbito maratokia eta futbol 7 txapelketa daude eskualdean

Maratoiak Berrizen eta Mallabian izango dira; futbol 7 txapelketa uztailean amaituko da Elorrioren

Gaur, bihar eta etzi 29. Futbito Maratokia antolatu dute Berrizko Berrioz eta Gorostia guraso elkarteek. Guztira, 32 taldek parte hartu dezakete gaur 19:00etatik aurrera kiroldegian garatuko

den maratokia. Mallabian ekainaren 14tik 16rako antolatu dute euskararen aldeko futbito maratokia. Ekainaren 10era arte eman daiteke izena: 669 028 718 (70 euro). Telefono berean Mallabian

ekainaren 17an hasiko den tenis txapelketarako izen-ematea ere egin daiteke.

Elorrioren, berriz, 'Elorrio Uria' futbol 7 txapelketa hasi dute, eta uztailean 4an jokatu gura dituzte finalak, Balendin Berri-Otxoa egunean. Multzo bitan banatuta, hamar talde dabilta lehian: Abadiño eta Ermuko bana eta Elorrioko zortzi. Asotelehen, martitzen eta eguenean jokatuko dituzte partidua, 19:00etan hasita, Eleizalden.

> PILOTA

Gaur, gazte mailako finala jokatuko du Atxondok

Herri arteko finalean Orozko izango du arerio

> JOSEBA DERTEANO

Gazte mailako Bizkaiko herri arteko txapelketaren finala jokatuko du Atxondok gaur, Orozkoren aurka. Ume, kimu eta haur kategorietako partidua 18:30ean hasiko dira, Bediako pilotalekuan.

Iazko finala herri berdinek jokatuko zuten, eta Atxondok irabazi zuen. Ume mailan Fabenek eta Enekok osatuko dute Atxondoko bikotea; kimuetan Axpe I.ak eta Axpe II.ak, eta haur kategorian Egurennek eta Rodriguezek.

Horrez gainera, Euskadiko Eskolarteko Pilota Txapelketako finalean protagonista izan dira atxondarrak. Egoitz eta Peio Axpe bikiak kimu mailan eta Ane Diez haur kategorian irabazle geratu dira.

Nagusietan ordezkari barik Bestalde, nagusien Bizkaiko Herri Arteko Txapelketatik kanpo geratu dira Elorrio eta Mallabia, final laurdenetan Arrankudiagak eta Markinak kanporatuta.

> KARATEA

Karate eta ninjutsu txapelketa bihar, Abadiñon

Durangoko Karate-Ninjutsu Wado-Kan Klubak antolatuta, sei eta hamalau urte bitarteko 120 bat gaztetxo batuko ditu zapatuko Durangaldeko Karate-Ninjutsu txapelketak, Abadiñoko probalekuan. Abadiñoko Udala ekimeneko laguntzailea da.

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Berriz, Abadiño, Ermua eta Durangoko gazteak haur-kategorian, kimuetan eta benjaminetan lehiatuko dira. Dabid Gaztelurrutia Durangoko klubeko ordezkariaren esanetan, aurreko aldiako arrakastak eroan ditu aurten ere txapelketa antolatzera: "Gurasoentzako, euren seme-alabek urte osoan egiten duten lana ikusteko aukera paregabea izaten da".

> ATLETISMOA

Romerok 1993tik zegoen marka ondu du 400 metroetan

Joan zen asteburuan Euskadiko Beteranoen Txapelketa jokatu zuten Durangoko atletismo pistan. Durango Kirol Klubeko hainbat atletek emaitza onak lortu zituzten, baina denetan azpimarragarriena Jose Luis Romerok lortu zuen, 65 urtera arteko 400 metroetan. 1993tik indarrean zegoen marka apurto eta 1.00.09an ezarri zuen berria. Aurreko marka Xabier Anton Bofill kataluniarraren eskuetan zegoen: 1.00.2.

Marka berria, eguraldi ilunagaz eta pistan hezetasuna nabari zela lortu zuen Durango Kirol Klubeko atletak. Gainera, 400 metroetakoa ez zen izan txapelketan lortu zuen garaipen bakarra. Aurretik, 200 metroetakoa ere irabazi zuen: 27.14.

ADITUAREN TXOKOA**Unai Zamalloa****Saskibaloia**

Bat amaitu eta hurrengoa hasi

Denboraldia bukatu da, eta beronen ebaluaketa egin ondoren, gure talde guztiak denboraldi berria prestatzen dabilta, batzuk entrentzaile berriarekin, eta beste kasuren batean, txapelketa nagusiagoan, aurten igogera lortu eta gero.

Errepasoagaz hasteko, aipatu behar da Tabirakoko emakumeen talde nagusian entrenatzaile aldaketa egongo dela, Alberto Molinak bere zikloa amaitu ostean. Maila handia uzten du, taldea oso ondo landuta eta berriztatuta.

Tabirakoko mutilen talde nagusian ez da entrenatzaile aldaketarik egongo, baina jokalarietan bai. Oinatz Menikak, Iñigo Igarzak eta Mikel Agirrek bere lekua uzten baitute, urte askoan taldeko jokalaririk garrantzitsuak izandakoak. Horri aurre egiteko, Tomás de Castrok jokalaririk gazteak sartu beharoko ditu taldean.

Azkenik, eta lerro gutxitan, Zornotzako EBA mailan aritu diren mutilei eta Mikel Garitaonandia entrenatzaileari zorianak eman gura dizkiet. Zilarrezko LEB mailara igotzea lortu dute, urte on eta gogor baten ondoren. Zorianak, bene-benetan!

Uda badator, baina oraingo egunotan lan guztia amaitu utzi behar da; komeni da planifikazioa aurreikus-tea, ondoren atsedena hartzeko eta gozatzeko, eta batez ere, aurrendenboraldia topera hasteko eta lantzeko. Espero dut hurrengo zutabeetan talde guztion berriak kontatzeko aukera izatea.

Solariuma
beltzaran kolore bizia
5 saiotan bakarrik
Begoña
instituto de belleza
Plateruen plaza, 7 - Durango
94 681 57 21

➤ Aisialdia

➤ **AMALURRA**

Oscar Parra

Perretxiko bati eginiko argazkia izan zen iazko edizioko irabazlea, Oscar Parrak eginikoa. Behean, haur eta gazteen ataleko irabazlea.

Urkiolako aberastasun naturala, argazkizaleen topaleku

Bihar, Urkiolako Parke Naturaleko X. Argazki Rallya egingo dute; "Aisia Urkiolan" gaia ipini dute argazkiak ateratzeko, eta parte-hartzaile bakoitzak hiru aurkeztu ahal izango ditu

➤ MARKEL ONAINDIA

Urkiolako Parke Naturala ezaguna da bere aberastasunagatik. Fauna, flora, paisajeak... Hainbat herritar erakartzen ditu Urkiolak faktore natural horiei eskerrak. Asko izaten dira ingurunea argazkietan hartzera joaten direnak. Ba-

da, bihar beste aukera bat edukiko dute, lehiaketa formatuan. Izan ere, X. Argazki Rallya egingo dute bertan, parkeko kudeatzaileek eta aldundiak eraturak. "Aisia Urkiolan" gaia ipini dute argazkiak ateratzeko, eta parte-hartzaile bakoitzak hiru aurkeztu ahal izango ditu.



Ane Aranaga

Goizeko 09:30etik aurrera inskribatuko dituzte argazkilariak Toki-Alai interpretazio zentroan. Haur eta gazteek euro bana ordaindu beharko dute, eta helduek euro bi. Egin ostean, entregatzeko, aukera bi eman dituzte: goizez 14:00ak arte, eta arratsaldez 16:00etatik 17:30era. Argazkiak originalak izango dira, eta izena ematean, memoria txartela hutsik dagoela egiaztatu beharko dute. JPEG formatu digitalean aurkeztu beharko dira.

Antolatzaileek sariak izango direla iragarri dute; Urkiolako ostatueta erabiltzeko txartelak izango dira. Haur eta gazteen ataletan 100 eta 80 euro emango dizkiete lehenengo bi onenei; helduen kasuan, 150 eta 100 euro.

Argazkien erakusketa

Argazki guztiak jasota, erabakia hartu eta gutun bidez helaraziko diete irabazleei. Lehiaketaren ostean, Toki-Alain bertan argazki onenekin erakusketa ipiniko dutela azaldu dute.

Goizeko 09:30etik aurrera inskribatuko dituzte argazkilariak Toki-Alai interpretazio zentroan

Antolatzaileek sariak izango direla iragarri dute; Urkiolako ostatueta erabiltzeko txartelak izango dira

Lehiaketaren ostean, Toki-Alain bertan argazki onenekin erakusketa ipiniko dutela azaldu dute

laguntzaileak



EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar

Ilea zaintzeko tratamendu berria

Amaia Salazarrek Nukleo ileapaindegia dauka Elorrian. Gaurkoan, ilea zaindu eta indarra emateko tratamendu berri bat dakar.

Zein da Nukleon eskaintzen duzuen tratamendu berria?

BC Fibre Force deitzen da. Ilea zaintzeko proposamen berritzailea da. Helburua, ilearen kalitate naturala berreskuratzea da. Erabat indartsu uzten du, eta hausturen portzentajea %95 baxatzen du. Ilea daukan mikrokeratinen antzekoak egitura kapilarraren azpitik sartzen dira, eta ilea indartu eta haren erresistentzia handitzen du.

Zenbat irauten du?

Tratamendu honek lau eta hamar aste bitarte irauten ditu, ileak eduki dezakeen kaltearen arabera. Gainera, hainbat produktu ere eskuratu ahal ditu bezeroak, etxean bere kontura prozesuagaz jarraitzeko. Honako hauek dira: xanpua, tratamendu indar-emailea eta ile-egokitzailea -spray eran ere bai-.

6 AHOLKU ZURETZAT

- 1 Ilea zaintzeko tratamendu berritzailea daukagu Nukleon: BC Fibre Force
- 2 Ilea erabat indartsu uzten du, eta hausturen portzentajea %95 baxatzen du
- 3 Tratamendu honek lau eta hamar aste bitarte irauten du
- 4 Ilearen kalitate naturala berreskuratzea da tratamenduaren helburua
- 5 Bezeroak hainbat produktu eskuratu ahal ditu, etxean prozesuagaz jarraitzeko
- 6 Xanpua, tratamendu ile-egokitzailea eta indar-emailea erosi ahal dira



ESTETIKA ZENTROAK

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Zelulitisaren aurkako
tratamendu erreduktore **BERRIA**

%30* deskontua
500€tik 350€ra

*Maiatzaren 1etik ekainaren 15a arte

Ikusi eta sentitu zure burua hobeto!

Goienkale 16-1. esk - 48200 Durango
Tel.: 94 681 73 80 • Mug.: 639 375 474

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILLAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



ILEAPANDEGIAK

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

IUNIK ileapaindegia

IUNIK ILEAPANDEGIA

Antso Estegiz, 1 - Durango - 94 621 64 91



